

## KOSTU EGITURA

Gure enpresa kostuan oinarritutakoa izango da, nahiz eta lehiakide asko ez izan, gure zerbitzua haiena baino merkeago eta erosoago izaten saiatuko garelako. Hori erabiliko dugu gero eta bezero gehiago irabazteko. Beste guztiek bezala, gure enpresak ere kostu batzuk ditu eta bi taldetan banatu ditugu:



Alde batetik kostu finkoak ditugu. Kostu finkoak ekoizpenarekiko independenteak dira, hau da, haien balioa ez da aldatzen, nahiz eta ekoizpena aldatu. Kostu finkoen barruan, web mantentze lanak eta makineria daude.



Bestetik, kostu aldakorak ditugu eta hauek ekoizpenarekiko proportzionalak dira, hau da, ekoizpenaren araberakoak. Gure kasuan, esanguratsuenak argindarra eta hornidurak izango litzateke. Gainera, enpresari ordaintzea suerta dakizkizkioken hainbat erga izango genituzke.



Gainera hasierako inbertsioa 10.000€-koa izango da. Hasierako lau partaideen artean, bakoitzak 2500€ ipiniz eskuratuko dugu diru hori. Bestalde, Tolosaldea Garatzen eta Espainiako gobernuak emandako diru laguntzak ere izango ditugu. Horren zati bat, beharrezko baliabide fisikoak lortzeko erabiliko dugu. Diru gehiago behar izanez gero, mailegu bat eskatuko diogu finantza-erakunderen bati.

**KOSTUAK LEHEN HILABETEAN:**

## KOSTU FINKOAK:

Makineria (plakak, kargatzeko gailuak...):	30000€
Altzariak:	1500€
Webgunearen mantentzea:	150€
Lokala:	850€
<b>GUZTIRA:</b>	<b>32500€</b>

## KOSTU ALDAKORRAK:

Hornidurak:	200€
Argindarra:	2000€
Zergak:	500€
<b>GUZTIRA:</b>	<b>2700€</b>